



## **Hezkuntzako orientazioa**

2010-2011 ikasturtean Ikastolen Elkartearen eskutik Urretxu-Zumarraga Ikastolako Zuzendaritzak eta Orientatzaileak hausnarketa mintegian parte hartu zuten beste hainbat Ikastolarekin batera. Hezkuntzen erreformen ondorioz orientazio akademiko profesionala eta eta ikaslek, familiek, eta oro har Ikastolako kide garenok izan ditzakegun beharrei erantzuna eman ahal izateko zereginak, egun Ikastolako orientatzailearengan biltzen dira. Ikastolak hausnarketa horren ondorioz funtzioen bereizketa egitea egoki ikusi du, eta era honetara ulertzen du eta Orientatzailearen funtzioak.

Ikuspegi zabalenetik begiratuta, orientazioan, eskolaz gain, familiarik eta gizarte sistemetatik ere esku hartzen da. Orientazioa ikaslearen eta bere inguruaren artean bitarteko diren aldaketa eragin multzoa dela esan daiteke. Hasieran, orientazio esku hartzearen subjektua ikaslea zen. Gaur, hezkuntza erakundearen eguneroko zereginetan kide diren pertsona eta elkarteak biltzen ditu orientazioak. Familiekin, irakasleekin, zuzendaritza taldearekin, nahiz herri elkarteekin dihardu orientatzaileak. Horrela, orientazioaren edukia ere, akademikoa, profesionala eta pertsonala izatetik, eskolaz kanpoko, erakunde eremuko, edo soziokulturala izatera ere iritsi da.

Diziplinarteko izaera du orientazioak. Hezkuntzaren osoko ikuspegian diharduen diziplina pedagogikoa izanik, esku artean dituen gertakariak direla eta, bai aztergaiak edota metodologiak berariaz eskatuta, beste zientzien ekarpena beharrezkoa du. Gainera, orientazioko esku hartzea talde lana da. Irakasleekin, nahiz banaka nahiz taldeka hartuta, aurrera eramateko programetan, hasierako diseinutik azken ebaluazioa egiten den arte, pertsonen arteko elkarlana eskatzen du orientazioak; irakasleekin, tutoreekin, gurasoekin, irakasle laguntzaileekin, kanpoko erakundeekin, zuzendaritzakoekin, kanpoko profesionalekin, administraziokoekin, ... harremanetan jardutea. Orientazioaren lan eremuan orientatzaileak baditu berariazko zereginak : informazioa ematea, diagnostikoa eta ebaluazioa, aholku ematea, terapeutikoa, formazioa, ikerketa, edo animazioa, besteak beste.

## Hezkuntzako orientatzailearen zereginak

1. **Diagnosia.** Pertsona bakoitzaren, taldearen eta testuinguruaren ezaugarrien analisia egin isilpekoak zainduz. Ikaste prozesuen, gizarteratzeko arazoaren eta nortasunaren diagnosia egin trebetasunak, ezaguerak, jarrerak, interesak, rolak, balioak edo errendimendua ikusteko inbentarioak, testak, elkarrizketak, eskalak eta beste teknika batzuk erabiliz. Objektiboa izanez, datuak interpretatu eta balioetsi.
2. **Ikaskuntza ibilbidean orientazioa.** Pertsonari lagundu ikasketak hautatzen, hezkuntza planak egiten, ikasteko zailtasunak gainditzen eta bigarren hezkuntzaren ondorenerako formazioa prestatzen, edo lanerako bidea hartzen, beti ere bakoitzaren erabakiak errespetatuz. Ibilbideetan aurrera joateko plangintzak egin, familien, tutoreen eta irakasle laguntzaileen arteko elkarlana sustatuz.
3. **Lanbide orientazioa.** Lan ibilbidea garatzeko zereginak ikasten laguntzen duten jarrerak, irizpideak eta gaitasunak –bizitzarako lan egitasmoa egokitu eta planifikatzeko trebetasuna- hurbiltasunez sustatzea. Lan-munduan norabideak hartzen joateko norbera eta ingurua ezagutzeko jarduerak ikasgarazi (arokatze jarduerak, erabakiak hartzeko programak, plangintza diagramak, ... erabil daitezke).
4. **Lan eremuan kokatzea.** Lan bila dabilen pertsonari laguntza eman etengabe eta pazientzia hartuz; lana bilatzeko teknikak irakatsi eta lanera sartzeko aukerak gehitzeko baliabidetara bideratu. Lan-munduarekin harremanetan jarri, informazioa hurbildu, erabakiak hartzen lagundu.
5. **Counseling-a.** Gatazka edo zailtasunen aurrean aukerak hauteman eta hausnarketa eginarazi, arretaz ikasleari entzunez eta enpatiazko harremana sortuz. Talde txikietan nahiz bakarka saio sistematikoak egin teknika konkretu batzuk erabiliz.
6. **Informazioa kudeatzea.** Hezkuntza, prestakuntza, lanbide eta enplegu aukerei buruz, aldiro informazioa bildu, antolatu, eguneratu eta zabaldu; tutoreei eta ikasleei informazio hori eraginkortasunez erabiltzen irakatsi iturrietara joanez.

7. Kontsulta eta koordinazioa. Ikasleen behar izanak ikusirik, tutoreen, irakasleen, gurasoen eta beste eragileen hezkuntza ekintzak koordinatu, irizpide bateratueta iristen eta hartutako erabakietara lotzen ahaleginduz.
  8. Euspena. Une zehazetan sortzen diren harreman arazo edo gatazkei behin-behineko erantzuna emateko aholkua eman; orekari eutsiz, estualdiari unean uneko irtenbidea bilatu.
  9. Etengabeko prestakuntza. Orientazioaren eremuko argitalpenak –ikaskuntza prozesuei, lan jokabideari eta horren garapenari, edo giza balioei buruzkoak, adibidez- astiro behatu, aztertu, ebaluatu eta ikastetxeko behar izan praktikoetara egokitu. Ikerketetan parte hartu.
  10. Programak eta zerbitzuak kudeatzea. Hartzaile den jendearen behar izanak igarri, identifikatu eta esku hartzea ekimenez diseinatu, txertatu eta jarraipena egin. Hezkuntza jarduera irizpidez balioetsi, ikastolan antolatuta dauden ebaluazio taldeetan kolaboratuz, ahal den neurrian
  11. Formazioa. Irakasle taldeei berrikuntza egitasmoak garatzeko bilakabidean aholkua eta psikopedagogiako gaietan irizpideak eman, eta baliabide didaktikoak erabiltzen irakatsi, baikortasunez hausnarketa gidatuz. Gurasoen formazioa antolatu eta ikastaldiak eman.
  12. Ekoizpena. Ikaskuntza materiala egokitu, berria sortu eta horien erabilpena ekimenez sustatu, hezkuntza proiektuan lankide diren lagun eta taldeekin elkarlanean.
- *Kolore urdinez idatzita azaltzen diren funtzioak orientazio bokazional profesionalekin dute lotura eta hauek tutore zein lan horietaz arduratuko diren irakasleei dagozkie. Besteak Ikastolako psikologoari dagozkio.*